

A.E.K. - Korrika 2 - etab.

KULTURAREN HERRITARTASUNA ETA PUBLIKOTASUNA

Tamalgarria da euskaldun euskaltzaleon artean gertatzen ari zaiguna: Euskara dela eta, alde batera **ala** bestera jo beharra, bata **ala** bestea aukeratu beharra. Baina alperrik da nonbait negar egitea: hortantxe gaude zoritxarrez; eta hortxe daukagu aukera egin beharra sarritan.

Korrikarena izan da azkena. Boikota eskatu dutenek aukera egitera behartu gaituzte: gutako asko geure borondatearen aurka. Lerro hauek kaleratu orduko, gehienok agertua izango dugu norberaren aukera. Ni neu **korrikaren** alde jarri naiz, eta boikotaren kontra. Besteren artean, arrazoin behinen honengatik: Euskarraren eremuan ez diot nik inori boikotik egingo, besteri boikota edo gerra egiten ez dabilen inori.

Baina Korrika-rena pasa da. Oraindik etorriko zaigu berriz ere bataren **ala** bestearen alde (nahiz aurka) aukera egin beharra. Bitartean, eta euskal kulturaren eremuan aspalditxotik dabiltzan hainbat eztabaida eta burruken funtsean, arazo hauxe dago argitu beharrekoa: Kultura herritarraren eta kultura publikoaren arteko harremana eta lotura.

Inoiz baino nabarmenago geratu da arazo hori **Korrika 2** honen inguruko eztabaidan. Zalantzarik ez

dago, euskal kulturaren berreskurapen bidean, euskararen normalkuntzak funtsezko eta helburuzko garrantzia duela; eta normalbide horretan helduen euskalduntzeak eta alfabetatzeak esanahi eta eskakizun bereziak ditu. Nonbait ez gara bat etortzen, euskalduntze-alfabetatze horrek zer, nola eta zertarako izan behar duen erabakitzean. Funtsean euskal kulturaren —eta euskararen— herritartasuna eta publikotasuna daude eztabaidan: AEK eta HABE tartean, besteren artean.

Eta horretan gaudenez, merezi du arazo horrek jendaurreko gogoeta eta eztabaida argi eta sakona, alde bakoitzaren eritziak eta jarrera ideologikoak eta politikoak zehazteko. Seguruenik datozen astebete eta hilebetetako eztabaidagaia izango da. Hemen ez daukat puntu hori nabarmenareazi besterik egiterik.

EAJk AEK salatu du, erakunde publikoak zapuztu eta euskararen normalkuntzaren eremuan horien eginkizuna ukatu egiten duelako edo. AEK, berriz, baiesten eta berresten saiatu da, berak erakunde publikoen erantzukizuna ez duela inola ere ukatzen, eta bai aitortzen eta betetzea eskatzen, berak bere «alternatiba herritarra» eskaintzen duenean.

Publikotasuna eta herritartasuna daude eztabaidan, beraz. Agian —seguruenik— ulertu ere ez dituzte berdin ulertzen hitz horiek alde batekoek eta bestekoek.

Klandestinitateak dator euskal kultura; klandestinitatean iraun du bizirik euskarak. Eztabaidarako oso abiapuntu garrantzizkoa iruditzen zait hori. Horrek markaturik dator gaurko euskal kultura osoaren eta bereziki euskararen burruka.

Klandestinitateak zera adierazten du aurren aurrenik: ERakunde publikoek, baztertu ezezik, eraso egiten diotela euskarari. Legez kontra egon ez denean ere, legez kanpo gelditu da euskara. Alde horretatik pribatizazio erabatekoa ekartzen du klandestinitateak. Oraintxe arte, arazo pribatua izan da euskara erakunde publikoentzat. Ikastolen eta euskalduntze-alfabetatze mugimenduari berari begiratu besterik ez dago.

Baina nork ukatuko du mugimendu guzti horren herritartasuna? Ez boteririk gabeko herriak suspertu eta indartu duelako bakarrik, eta bai herritik sorturiko erakunde eta taldeek eratu, egituratu eta taxutu dutelako ere. Euskal kultura eta euskara herritarrak dira, ezer izatekotan, beren susperraldi moderno honetan. Eta

hertarrak izanik, ez lukete ego= n behar inorentzat salgai, inolako era- kundek, alderdik edo gobernuk bote- re ekonomiko edo politikoaren inda- rez erosteko eta kontrolperatzeko moduan, alegia. Euskal kulturaren eta euskararen jabe Herria dela esa- ea ez da aski; printzipiozko baieztan- en abstraktu hutsa gerta daiteke orri. Euskal kulturaren eta euskara- ren herritartasuna, berriz, histori- oak eta konkretuak direla iruditzen aiat. Dinamika historiko horren ize- an da Herria, berak suspertu, in- artu eta taxutu duen kultur eta hiz- untz dinamikaren jabe.

Hala ere, kandestinitatearen «ilun- etatik» atera den kultura herritarra erta daiteke klandestinitatearen lilu- pean gelditzea. Seguru asko, euskal kultur mugimenduak ez du oraindik erabat lilura hori astindu; eta behin baino gehiagotan herritartasuna eta klandestinitatea nahasi egiten ditu.

Publikotasunaren zelai zabalera, erlutasunez eta burua tente, ager- keko ordua da euskal kultura herri- arrak. Ez al da, bada, horretxan alde erukatu aspaldiko urteetan? Jen-

daurrean agertzeko eta publikotasu- nez «zikintzeko» beldurra galdu egin behar du.

Baina hortxe dago koska... Zer da klandestinitateetik datorren kultura herritarrarentzat publiko bihurtzea? Aurrerako urratsa da publikotasuna kultura herritarrarentzat: bere garai- penen, hain zuzen ere. Klandestinita- tean dabilen kultura herritarra nola- bait pribatua izatera behartuta dago: legez pribatua noski; baina izatez ere pribatua nolabait, horren alde burru- katzen direnek beren kultura neurri batez behintzat pribatizatu egiten du- telako.

Klandestinitateetik ateratzen den kultura herritarrak garaitu egin behar du pribatutasun-komplexu hori eta uxatu pribatizazio-joera. Herri osoarentzat kultur-aukerabide berri bezala agertuz. Horrela bakarrik irabaziko du kultura herritarrak bere publikotasuna, eta ez agintari «ber- riei» publikotasuna eskatuz baka- rrik.

Izan ere, publikotasuna irabazte- koa da; benetako kultura herritarrak,

berriz, irabazia du. Botere eta era- kunde publikoek kultura herritarran publikotasuna aitortzea besterik ez dute: aitortzea eta finkatzea. Behin eta betiko uxatu behar dute, ordea, pentsabide eta jokabide hau: «Gu gara Herriaren ordezkaritza —gehien- goa eta boterea dugulako—; beraz, geure esku dago kultura herritarra publiko bihurtzea».

Kultura herritarrari berez dagokio publikotasuna; bi erataro pribatiza dezakete botere publikoek: klandesti- nitatera baztertuz nahiz beren kontrolpean ezarriz. Kultura herritarra ez bait da publiko bihurtzen Gobernuak hori kontrolperatuz, eta bai Gobernuak horren herritartasuna onartuz eta bere publikotasunez fin- katuz. Kultura herritarraren herritar- tasuna babesteko eta zaintzeko dago Gobernuak.

Baina guzti hori oso abstraktua da. Zehaztu eta hurbildu beharrekoa. Geurea bait dugu arazoa: euskal kul- turarena eta euskararena. Geure ar- tean dugu eztabaida. Eta burruka.

Jausoro

